

# HONTZA

## 1. TXOSTENA 2021ko iraila

Asociación para la defensa de los derechos humanos  
Giza eskubideen defentsarako elkartea

# HONTZA

IDENTITATE BAT, HERRI BAT  
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA  
ΚΕΜΕΝΑ ΕΤΑ ΕΡΡΕΣΙΛΕΝΤΖΙΑ



Giza eskubideen inguruko txostena,  
Hontza behatokia - 1 zk., 2021eko iraila.



## EDUKIAK

### LABURPENA

- 1 SARRERA
- 2 HONTZAREN EREDU DINAMIKOA, AZTERTZEKO
- 3 ULERTZE PARTEKATUA
- 4 AUKERAK
- 5 ERABAKIAK
- 6 EKINTZAK
- 7 ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

# LABURPENEA

HONTZA sortu da herritarren eta euskal erakundeen zerbitzuan jartzeko eta giza eskubide indibidual zein kolektiboen etengabeko eboluzioa monitorizatzeko, gure herrian.

Monitorizazio horretatik abiatuta, HONTZAK bere burua eskaintzen du berme moduan erabaki publiko zein pribatuak hartzeko prozesuen optimizazioan, ahalik eta erresilientzia handiena sortzeko eta gure herri-identitatea sendotzeko; izan ere, gure herri kementsuak Giza Eskubideak defendatu eta maite izan ditu betidanik.

HONTZAren funtsezko bokazioa zeharo inklusibo eta transbertsala da. Ez du zerikusirik tradiziozko inongo politika-aukerarik; izan ere, hauxe da, hain zuzen ere, **elkartearen ardatza: hertsiki apolitikoa izatea**, terminoaren zentzu partidistan, eta, aldi berean, *politika* hitzaren zentzu etimologikoan, erabat politikoa. Hori guztia ulertu behar da euskal herritarren —beraz, pertsona bakoitzaren— betekizunei lotutako konpromiso tinko baten moduan, eta horren garapenak, osasuntsua izateko, ezin da izan Giza Eskubide indibidual eta kolektiboei lotutako bestelako oinarririk: **erabakitzeko eskubidea**, hau baita gainerako eskubideak sintetizatzen dituena.

Giza eskubide bakoitzak gauzatzea honako behar hauek inplikatzeko: bizimodua ateratzea nonbaitetik, libreki mugitzea, pertsona bakoitzaren —eta

herri bakoitzaren— pribatutasun transferiezina gordetzea. Gizakiari dagokionean, inork (pertsona edota kolektiboa) ezin du legitimotzat hartu batek beste baten orde zerbait erabakitzea inolako zirkunstantzian, eta are gutxiago norberaren erabakiak beste bati inposatzea, ezta gehiengoek legitimoki erabakitzen dutenean ere, kasu horretan ezin baitute pertsonen edo herrien oinarriko giza eskubideen kontra egin: eskubideok berezkoak dira, hau da, pertsona bakoitzari lotutakoak, ez gehiengoei lotutakoak.

HONTZAK jakin daki euskal instituzioek lan eskerga egiten dutela gure gizartearen ongizate sozioekonomikoa eta sanitarioa gordetzeko. Eta jakinda ahaleginak eta borondate ona batzuetan ez direla nahikoa, **Hontzak ardura hauek hartuko ditu: behatzea, diagnostikatzea, erakustea eta aholkatzea balizko errorearen gainean, bai eta haiek indargabetzeko bideen gainean ere**. Zorioneko etorkizuna izateko, ez dira behar errorerik edo okerrik egiten ez duten instituzioak, baizik eta arduraz eta borondate onez jokatzeko dutenak; horrela jokatzeko, huts egiteko arriskua hartu behar da aintzat eta, aldi berean, erroreak apaltasunez onartu eta zintzotasunez zuzendu ahalik eta azkarren: horrexek ematen dio herri bati handitasuna.

Gure herrian dagoen Giza Eskubideen egoera dela eta, HONTZAK lehenengo txosten honetan bere aztertzeke eredu

dinamikoa aurkezten du, baita ikuspegi global eta kontestualizatua eskubide horien eboluzioan, 2020ko hasieratik.

Giza Eskubideak erabat lotuta daude erabakitzeko eskubide indibidual eta kolektiboari, eta, pandemiaren hasieratik Espainiak kudeatutako estrategian Euskal Herriak zer toki hartu duen ikusita, beharrezkoa da planteatzea erabakitzeko eskubidea indartu edo ahuldu den orain arte.

Dokumentu honen amaieran zazpi ondorio aurkezten dira; ondorio horiek definitzen dute HONTZAK zer posizio

duen aipatutako eskubidearen inguruan. Behaketa honetan sintetizatzen dira: erabakitzeko eskubidetik men egiteko kulturara pasatzeko arriskuan. Horrek pertsonetan ez ezik, gizarte-identitatean ere kaltea eragiteko arriskua dakar.

Horren aurrean, HONTZAK gure lider eta erakundeei honako proposamen hau egiten die: elkarrizketa libre eta irekiaren tradizioa itzultzea, tradizio mota horretan herritarrek parte hartu izan baitute eta ardura erakutsi. Horrek guztiak bermatzen du gure herriaren erresilientzia.

# 1 SARRERA

2019. urtearen amaieran, Euskal herritarrok jakin genuen birus berri bat agertu zela Txinan. Hasieran, ez zuen ematen mehatxu handirik egongo zenik.

2020ko martxoan, ordea, egoerak txarrera egin zuen, eta espero ez zen maila jakin batera heldu zen. Baina orduko prozesu osoa ulertzeko, aurrekari batzuk ezagutu behar dira, eta kokatu testuinguru jakin batean.

## 1.1 Aurreko hilabeteak

2019ko irailean, GPMBk (Global Preparedness Monitoring Board/ Prestaketaren Mundu Batzordea) urteko txostena argitaratu zuen: “Mundua arriskuan”

Nazioarteko erakunde hori Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) eta Munduko Bankuak sortu zuten, 2018ko maiatzean, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) bultzatuta; **helburua zen mundua prestatzea osasun-krisi globalei erantzuteko.**

Prestaketaren Mundu Batzordeak bazituen baliabideak eta esperientzia pandemia larri global baten arriskuei buruz ohartzeko, baita neurri globalak proposatzeko ere: neurri horiek munduari ahalbidetuko liokete aipatutako arriskuari aurre egitea eraginkortasunez; hori gertatuko litzateke etorkizun aurreikusiezin baina erreal batean.

Urteko lehenengo txosten horrek premiazko zazpi neurri hauek proposatzen zituen (gaztelaniazko

jatorrizko dokumentua euskaratu dugu; parentesi artekoak geure oharrak dira).

- I Gobernuburuek inbertitzeko konpromezua hartu **behar** dute (inbertitu pandemien kontra prestatzeko baliabideetan).
- II Herriek eta eskualdeetako organizazioek eredu izan **behar** dute (herritarrentzat eta bestelako erakundeentzat).
- III Herri guztiek sistema sendoak egin **behar** dituzte (pandemien kontra prestatzeko).
- IV Herriek, diru-emaileek eta erakundeek prestatu **behar** dute txarrena gertatuz gero.
- V Finantza-erakundeek prestaketa lotu **behar** dute arrisku ekonomikoen planifikazioarekin (pandemiak ekarritako arrisku

ekonomikoak eta horiei aurre egiteko neurriak).

- VI Garapenerako asistentzia finantzatzen duten erakundeek pizgarriak (pizgarri fiskalak) sortu **behar** dituzte eta finantzazioa areagotu. (pandemien kontra prestatzeko).
- VII Nazio Batuek koordinazio-mekanismoak sendotu **behar** dituzte.

Azken puntuak Nazio Batuen funtsezko rola nabarmentzen du krisi horien gobernantzan eta nola prestatu alde aurretik, eta azpimarratzen du haren lidergo-rola prestaketan, bereziki simulazio-ariketak sustatuz; izan ere, zehazten da 2020ko irailerako bi simulazio-ariketa oso egiteko xedea lortu dela sistema guztian, bietako bat arnasari lotutako patogeno bat nahita aske uztea.

2019ko irailean, diru-mailen batzarra egiten da New Yorken; bertan Espainiako presidente Pedro Sanchezek konpromisoa hartzen du 100 miloi € baino gehiago emateko GAVIri (Bill eta Melinda Gates Fundazioak bultzatutako aliantza), txertoak garatzeko.

2019ko urrian, GPMBren dokumentuaren beste gidalerro bat gauzatzen da prozesu honetan: simulazioa, azterketa eta agertokietan oinarritutako planifikazio prospektiboa, hau da, 20.1 Ekitaldia, Jon Hopkins Unibertsitateak teknikoki garatutakoa eta OMEk (Osasunaren Mundu Erakundea) eta Bill eta Melinda Gates Fundazioak babestutakoa.

Zenbait jardunaldi izan ziren simulazio, narrazio eta deliberazioekin. Horren ondoren, aditu instituzional, akademiko enpresakoek zazpi gomendioz osatutako zerrenda bat osatu zuten. Hona laburpena:

- I Gobernuek, nazioarteko organizazioek eta enpresek planifikatu **behar** dute orain nola erabiliko diren funtsezko gaitasun korporatiboak, eskala handiko pandemia batean.
- II Industriak, herrietako gobernuek eta nazioarteko organizazioek elkarrekin lan egin **behar** dute nazioarteko erreserbak hobetzeko aurkako neurri medikoetatik (MCM, Medical Counter Measures), eta horrela ahalbidetu aurkako neurri horiek azkar eta berdin banatzea pandemia larri batean.
- III Herriek, nazioarteko organizazioek eta munduko garraio-enpresek elkarrekin lan egin **behar** dute bidaiak eta merkataritza mantentzeko, pandemia larriak direnean.
- IV Gobernuek baliabide gehiago eta laguntza handiagoa eman **beharko** lituzkete honako hauek garatzeko: txertoak, terapiak eta diagnostikoak, guztiak beharrezkoak pandemia larri batean.
- V Enpresa globalek pandemien zama ekonomikoa onartu **behar** dute, eta borrokatu prestaketa sendoagoa izateko.

- VI Nazioarteko organizazioek lehentasuna eman **behar** diote epidemiek eta pandemiek ekarritako inpakto ekonomikoak murrizteari.
- VII Gobernuek eta sektore pribatuak lehentasun handiagoa eman **behar** diote metodo-garapenari erreorearen eta desinformazioaren aurka egiteko, hurrengo erantzun pandemikoa izan baino lehen.

Gidalerro horiek hiru aspektu hauetan sintetizatu daitezke: globalizazioaren beharra, kolaborazio publiko-pribatuaren beharra eta informazio-kontrolaren beharra.

## 1.2 Pandemiaren hasiera

Agian patua izan zen zoritxarra ekarri zuena, hain zuzen, instituzio supranazionalak pandemia handi bat prebenitzeko lanean jarri ondoren.. Agian kasualitate bat baino ez zen izan.

Kontua da 2019ko abenduan, oraindik bi hilabete pasatu ez zirela 20.1 ekitaldia egin zenetik, alarma piztu egin zen. Wuhan-en (Txina) antzemandako lehenengo kasuek erne jarri gintuzten guztiok.

Eztabaidak izan ziren hurrengo hilabeteetan. Adu batzuek egoeraren larriaz ohartarazten bazuten ere, agintari eta komunikabide gehienek lasaitasuna eskatzen zuten.

2020ko martxoaren hasieran, Espainiako Estatuan esaten zen egoera

Zazpigarren aginduak aipamen berezia eskatzen du, halako muturreko kezka agertzen baitu pandemia global batean sor daitekeen informazio faltsu eta gaiztoagatik; horrek komunikabideak behartzen ditu informazio ofizialez betetzera eta esandako informazio gaiztoa modu sistematikoan ezabatzerantz zentsuraren bidez.

Argi dago informazio faltsu eta gaiztoa minimizatu beharko litzatekeela edozein osasun-krisitan, baina arreta ematen du kezka horrek; izan ere, ez dago aurrekari historikorik pentsatzeko desinformazio gaiztoa arazo-iturri kritikoa izan denik ezagun diren osasun-larrialdietan.

ez zela larria. Komunikabide batzuek barregarri uzten zituzten alarmistak; areago, martxoko bigarren astean ekitaldiak eta manifestazio masiboak egiten ziren, agintariek dena ontzat emanda.

Baina egia da ordurako organismo supranazionalak –Munduko Bankua, kasu– aurrekontuak ixten ari zirela eta lan handia egiten ari zirela plan globalak aprobartzeko eta, horrela, pandemia berriari erantzuteko.

Azkenean, askok onartu nahi ez zutena gertatu zen. Pandemia Europara heldu zen, agresibitate handiarekin heldu ere, eta kutsatze-foku larriak eragin zituen Italiako iparraldean, Madrilan eta, zoritxarrez, Euskal Herrian.



### 1.3 Borroka-estrategia

Pandemiaren hasieratik, itxialdia —edo *lockdown*, nazioartean esaten zaion bezala— da hura borrokatzeko funtsezko estrategia.

Estrategia berria da, historian inoiz erabili ez zena. Ez dator bat epidemiologia akademikoaren eredu klasikoekin, baina Txinan —mehatxuaren epizentroa— arrakastatsua izan denez, berehala hartzen da aintzat munduko herri askotan. Itxialdia interakzio soziala ahalik eta gehien murriztean datza; horretarako, pertsona guztiak beren etxeetan ixten dira eta “funtsezkoak ez diren” ekonomia-jarduera guztiak eteten dira, bai eta eskolak eta unibertsitateak ere.

Herri eta kolektibo batzuen errezeloak direla-eta, eztabaidagai hau pizten da: zerk dauka lehentasun handiagoa, osasunak ala ekonomiak? Eztabaida polarizatu egiten da eta bi faktoreen arteko oreka bilatzeko tarteko posizioa ia desagertzen da, barnean lotura handia egon arren.

Komunikabideetan, bizi bakar bat salbatzearen aldekoek osasun-krisia kudeatu bitartean ekonomiari eusteko

aldarrikatzen dutenen aurka egiten dute. Eta, azkenik, iritzi publiko eta ofizialak bizi bakoitza (banan-banan) salbatzeko asmo teorikoaren alde egiten du, nahiz eta horrek ekarri ekonomia eta bizimodu soziala ia erabat “itzaltzea”

Herri batzuek, bereziki Erresuma Batuak eta Suediak, hasieran estrategia klasikoaren alde egiten dute. Estrategia horrek aktibitate soziala murrizteko neurri leunagoak hartzea du oinarri: bakarrik ekitaldi handiak murrizten ditu, eta ekonomiari zein bizimodu sozialari eusten die ia normaltasunez.

Baina Erresuma Batuak estrategia aldatu zuen eta ildo globalarekin bat egin zuen. Suediak, ordea, orain arte eutsi dio bere strategiari. Horri esker, bi alternatibak konpara daitezke; horrela izan ez balitz, ezinezkoa izango zen konparatzea.

Erresuma Batuan ikusten da nola estrategia aldatzean gaixotasunaren eboluzioa ere aldatzen den. Suedia “kontrol-taldea” da, eta horrek ahalbidetzen du itxialdirik eta isolamendu sozialik gabeko eboluzioari behatzea.

## 2 HONTZAREN AZTERTZE-EREDU DINAMIKOA

### 2.1 Erabakitzeko eskubidea

HONTZAREN ustez, Giza Eskubideei testuinguru jakinetan behatu behar zaie, eta modu dinamikoan.

Horrek ez dakar eskubideok erlatibizatzea: Giza Eskubideak pertsona bakoitzari erabat lotuta ikusi behar ditugu, inguruko zirkunstantziak alde batera utzita.

Horrekin esan nahi dugu —edozein materia errearekin gertatzen den bezala— Giza Eskubideek errealtate-printzipio bati eusten diotela. Ez dira paper batean idatzitako fikzioa, baizik eta gizaki bakoitzari dagozkion ezaugarri naturalak eta —horregatik, hain zuzen ere— errealak, pertsona bera den bezalaxe.

Batetik, testuinguru pertsonal eta sozial bakoitzean, Giza Eskubideen benetako garapen-maila nahi den absolutu bati dagokio beti, eta betiere hura baino maila txikiagokoa.

Bestetik, gizarte guztietan Giza Eskubideen garapen-maila gorabeheratsua izaten da; izan ere, kontuan hartu behar dira zer-nolako aurrekariak, kultura, ekonomia eta bestelakoak egon diren. Giza Eskubideei dagokienez, dinamika horrek markatu egiten du ikuspuntu objektiboa, gizakiak egindakoari lotuta baitago, batez ere

erabaki indibidual eta kolektiboak hartzeko prozesuei.

Horrez guztiaz gain, Giza Eskubideak gogorki lotuta daude pertsona bakoitzaren **erabakitzeko eskubideari**, erabaki kolektiboen testuinguru banaezinean. Gainera, erabakitzeko eskubideak, oinarritzeko eskubide bati uko egiteko eskubidea barnean hartzen badu ere, ez dakar uko egiten zaion eskubidea suntsitzea.

Pertsonak berak egin diezaioke uko eskubide jakin bati, baina horrek ez dakar beste pertsona edo kolektibo batek eskubide horri etekina ateratzea, ekintza edo erreakzioa dela. Baten batek uko egiten badio eskubide jakin bati, ez dio baimenik ematen beste pertsona edo kolektibo bati eskubide horretatik etekinik ateratzeko. Nork bere askatasun-eskubideari uko egiten badio libreki, beste batek ez du eskubiderik esklabu moduan erabiltzeko: ez da bidezkoa. Lehenengoaren eskubidea mantendu egiten da, eta esklabutzak negatibo morala izaten jarraitzen du.

Jokabide are okerragoa da, jakina, kanpotik behartzea eskubide bati uko egitera; hori bere baitan oximoron bat da, berez automatikoki absurdora murrizten dena. Eskubide jakin bati uko egitera behartzea hauxe da bere baitan:

eskubide horren urratze-ekintza bat. Giza eskubide bati uko egitea eskatzeko ideia bera absurdu politikoa, etikoa eta morala da.

Horrek absolutu moralaren muga jartzen dio "guztion onerako" kontzeptuari; izan ere, komunitate bat ezin da jabetu bere gizabanakoek utzitako eskubideez, eta, beraz, ez du inolako legezketasunik eskubide horietako bat bera ere ezabatzeko edo suntsitzeko, ez eta gizabanakoek bere eskubideoi borondatez uko egingo baliete ere.

Erabaki kolektibo bat dagoenean, gizabanakoei eskatu ahal zaie beren

eskubide indibidualei uko egiteko, baina inperatibo morala da uko egiteko edo ez egiteko erabaki indibiduala errespetatzea, are uko egite hori testuinguru jakin batean gehienek moralki positibotzat hartzen badute.

Pertsonak erabakitzeko eskubidea deuseztatzen duen herriak kolektibitate moduan erabakitzeko eskubidea ezabatzen du automatikoki. Giza eskubide hori bere izate sozialetik ezabatzen du; horrela, kolektibitaterako onura handiagoa izateko aukera bertan behera uzten du eta degradazio etiko, politiko eta moralerako bidea zabaltzen du.

## 2.2 Ekintzarako aukerak

Giza ekintza (indibiduala nahiz kolektiboa) hartutako erabaki bakoitzaren dinamika zehatzetik azter daiteke, eta gero errealitate pertsonal eta sozialean praktikan jarri.

Erabaki horiek adaptagarriak dira. Esan nahi da errealitate eta erresilientzia printzipio bati erantzun diezaioketela; printzipio horren arabera, denboran metatutako erabakien fruituak bizitza produktiboa eta osasuntsua errazten ditu. Horretarako, zenbait etapetatik pasatu behar da:

**I Aurre egiteko egoeraren ulertze eraginkorra, garrantzi handiko distortsiorik edo lerrabiderik gabe.** Erabaki kolektiboa bada, ulertze partekatua izan behar da, nahiz eta ahobatezkoa izan ez. Horrek esan nahi du pertsona bakoitzak besteen

analisi-ikuspuntua argi ulertzen duela, bere ikuspuntuarekin bat etorri ez arren.

**II Aukerak hedatzea.** Erabaki orok inplikatzeko moduko aukeratzeko moduko alternatibak izan direla. Aukera bakarra bada, ezin da baieztatu erabakitzeko eskubidea erabiltzen ari dela; izan ere, aukera bakarra, berez, betebeharra da, nahiz eta erabaki libre hipotetikoa bat etorri harekin. Pertsonak pozik gera daitezke betebeharrarekin, edozein modutan ere aukera bera hartuko baitzuten, baina horrek ez du esan nahi erabakitzeko eskubidea erabili dutenik, bestelako aukerarik inoiz egon ez delako eta aintzat hartzeko aukerarik izan ez dutelako.

### III Alternatibak bahetzea eta hautatzea.

Kontuz ibiltzeko hitzak dira, berez pertsonen arteko gatazka hartzen baitute barnean, baita alternatiben konfrontazioa eta beste alternatiba batzuk; azken horiek etapa honen hasieran zeudenen bat-etortzeen eta desadostasunen emaitza dira. Fase honek sormen-anabasa eragiten du, baita halako harridura moduko bat, baina ezinbestekoa da pertsona edo kolektibo batek berme guztiekin erabaki dezan ea trebetasunez jokatu duen, hainbat erabaki hartu ondoren.

**IV Erabakitzea.** Etapa honetan erabakitzeako eskubidea gorenera iristen da, nahiz eta eskubide hau lehenengo etapatik erabiltzen den ezinbestean. Garrantzitsua da honetaz konturatzea: nahiz eta pentsatu etapa honetan erabaki bat hartu dela, aurreko etapak modu eraginkorrean garatu ez badira, erabakitzeako eskubidea ez da

gertatzen, egoeraren ulertze egokirik ez baitago, ezta askotariko ekintza-alternatibarik, eta horrexek ahalbidetzen du askatasunez jokatzeko.

**V Gauzatzea.** Erabakiak ekintza bihurtzen direnean aitortzen da erabakitzeako eskubidea; orduantxe ikusten da benetako emaitza. Ekintza erabaki libreei eta gertuko errealitateari lotzea luzera begira eraginkorragoa da, tartean dauden pertsonentzat zein kolektiboentzat.

Erabakiak hartzeko eredu honetantxe sakondu eta testuinguruan jarri nahi du HONTZAK bere giza eskubideen azterketa dinamikoa; izan ere, erabakitzeako eskubideak berak (indibidual eta kolektiboa) eusten dio giza eskubideak gauzatzeari, eta erabakitzeako dinamikak berak eragiten du joera positiboa edo negatiboa eskubideok ezartze praktikoan.

## 3 ULERTZE PARTEKATUA

### 3.1 2021 urtea Euskal Herrian

Europako herrien aldean, pandemia lehenago heldu zen gure herrira; Gasteiz izan zen ataria. 2020ko martxoaren hasieran antzeman ziren lehenengo kasuak, oraindik osasun-protokoloak definitu gabe zeudela.

Egoera larria bada ere, Espainiako Gobernuak martxoaren 14an alarma-egoeraren adierazpena egin arte Euskal Herrian ez dira aintzat hartzen beharrezko protokoloak, betiere Estatuko Gobernuak ezarritakoak, aginte bakar gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), hildakoen kopurua 24.238 da: 2020ko behin behineko datuak dira, gaur egun Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) emandako datuen arabera (urte bat

geroago argitaratzen dira horrelako datuak).

Zentzu erlatiboan, kontu hau egin behar da: heriotza-tasa % 11,07 da 10.000 biztanleko; aurreko hamarkadaren batezbestekoa % 9,6 da 10.000 biztanleko, betiere EINek emandako datuen arabera.

Ondo ulertzeko, zifra globaletan, urte "normal" bateko hildakoen kopurua 21.500 inguru izango zen, eta 24.238 izan da, EINen behin behineko datuen arabera.

Beste modu honetan ere ikus daitezke datuak: urte normal bateko egun batean 59 pertsona hiltzen badira EAEn, 2020. urtean 66 pertsona hil ziren eguneko, hau da, 7 hildako gehiago egunero, kausa bat edo beste dela-eta.

### 3.2 Arriskua eta atsekabea

Hildako bakoitzaren inguruan atsekabez eta minez blaitutako istorio bat dago, pertsona bakoitzaren zirkunstantziak eta kausak alde batera utzita. Mundu hau uzten duenak sufritzen du eta hura maite duten pertsonen artean ere sufrimendu handia dago: horiei oraindik geratzen zaie dolu-prozesua.

2020. urtean bizi izandako zirkunstantzietan atsekabea eta mina askoz handiagoak izan dira,

zendutakoek beren bizitzako azken uneetan izandako konpainia-murrizketengatik; horrek zauri sakona utzi du gure gizartean, ikuspegi humanoaren eta antropologikoaren aldetik.

Handia al da hildakoen gehiegizko aldea? Txikia?

Esan dezakegu Euskal Herriak — Europako gainerako herrietan bezala—

tragedia humanitario bati aurre egin behar izan ziola. Lehenengo asteetan tragedia handi-handia espero bazen ere, geroago neurritsuagoa izan zen, agian agintariek eta herritarrek egindako ahaleginengatik, agian gaixotasuna bera biztanleen artean hain modu ankerrean zabaldu ez zelako, hasieran uste hori bazen ere.

Gertatutakoaren azterketa osoa eginda, ez da nahikoa gaixoei eta hildakoei erreparatzea, ez eta haien inguruetan (familian zein gizartean) utzitako sufrimendu-arrastoei. Behar-

beharrezkoa da kontuan hartzea zuzeneko sufrimendua (familian) eta zeharkakoa (gizarte guztian), osasun-larrialdiak eragindako kontrol-neurriengatik.

Muturreko itxialdia asteetan zehar, distantzia soziala, arnasbideak tapatzeko erabilera orokorra, kultura-ekitaldiak eta jolasak erabat ezabatzea, ekonomia eta enplegua hondatzea... faktore horiek guztiak maila berean hartu behar dira barnean, gertatutakoaren azterketa objektiboa egin nahi bada.

### 3.3 Ulertze partekaturako elkarrizketa

Edozein kolektibok egindako berariazko azterketatik harago, egoeraren ulertze partekatuak —bai krisiaren hasieran, bai orain, bai etorkizunean— dinamika dialogiko luzea eta sakona izan beharko du.

Erabakitze eskubidea gauzatzeko, hau da etaparik zailena eta kritikoa, honako hauek eskatzen baititu:

**I Iritzia alde batera uztea,** norberarena desberdina denetan.

**II Askotariko informazioa libre ibiltzea,** hori bahetzea erabakitze prozesuaren beraren zati da-eta; hau da, alde bakar batek ezin du informazioa ezabatu egokia ez balitz bezala, alde aurretik inolako elkarrizketarik eta eztabaidarik egon ez bada.

**III Pazientzia izatea** ulertze partekatu hori azalera ateratzen uzteko, dialogika ireki horretatik abiatuta, baina informazioa *a priori* arbuiatu gabe eta erabakiak arinegi hartu gabe, erabaki horien kalitatea ez arriskatzeko.

**IV Lidergo parte-hartzailea eta sendoa izatea,** elkarrizketa-espazio egokiak sortzeko: hartu beharreko erabakia zenbat eta kritikoa izan, orduan eta beharrezkoagoa eta zailagoa da eusten.

Erabakiak hartzeko etapa hau aztertze, ezinbestekoa da pertsona bakoitzak bere burua azaldu ahal izatea, bere oinarriko eskubideen arabera; ez da beharrezkoa —ezta komeni ere— hartutako erabakien edukiari erreparatzea: erabakiak hartzeko prozesuak aztertu baino ez da egin behar.

Euskal Herriaren kasuan, azterketa horrek ondorio jakin batera garamatza. Bertako administrazioek (krisiaren liderrak) honako aukera hau hartu zuten: Estatuko gobernuak, aginte bakar gisa, ezarritako jarraibideei segitzea detailez detaile, garrantzizko eragozpenik jarri gabe. Horrela, bat egin zuten men egiteko prozesu batekin; prozesu hori berez hierarkikoa eta autoritarioa zen, ia militarra. Luzera begira bateraezina zen ulertze partekatu eta zibilarekin, berariaz euskalduna, zintzoa eta egokitzea.

Espainiako Estatuaren lidergo bakarrari lotutako diziplinak, men egiteko ezaugarriaz gain, euskal herritarrei heldu ahal zitzairen informazioa mugatzea ere ekarri zuen. Metodologiaren ikuspuntutik, aniztasun dialogiko arriskutsua ezabatzea da: eta Euskal Herriak men egiten dien haiek oker egongo balira?, eta haien interesak bat etorriko ez balira euskal nazioarekin?, eta aparteko ezaugarriak (kulturalak, ekonomikoak, sozialak,

biologikoak...) egongo balira oso bestelako ekintzak eskatuko luketenak?

Erabakiak hartzea, hemen, ulertze erabat espainiarrarekin, ez du ematen ez eragingarriena ezta eraginkorrena ere denik. Esan dezakete egoeraren larriak denok batera ibiltzea eskatzen zuela eta ezin zela oztoporik jarri, baina badakigu Europa osoan hasiera-hasieratik egoera ulertzeko beste modu batzuk egon zirela, eta horrek jokatzeko beste modu batzuk ere ekarri zituen. Egoera ulertzeko aparteko modu horiek ez ziren aintzat hartu publikoki aztertze alarma-egoeraren testuinguruan; beraz, aukera bakarra zenez, ezin da esan Euskal Herrian erabaki zenik.

Gure herriaren bi oinarritzko printzipio hauek erabat baztertu ziren: adierazpen- eta informazio-eskubidea eta elkarrizketa irekia, azken hau hainbat belaunaldik lortutakoa ahalegin handiz. Bai, gure instituzioek munduko kudeatzaile txarrenetakoan alde egin zuten, edo haien ondoan kokatu ziren.

## 4 AUKERAK

Aukera bakarra dagoenean, ez dago ezer erabakitzerik. Aukera bakarra eskaintzen denean, erabakitzeko eskubidea men egiteko betebeharrak bihurtzen da.

Euskal herritarren erabakitzeko balizko aukerak bertan behera geratu ziren, gure administrazioak men egiteko diziplina bere egin zuenean Espainiaren agintepean. Berezko instituzioak dituen Estatu gabeko nazio bat izatetik, gure erkidegoa Espainiako Estatu eskualde bat gehiago izatera pasatu zen. Eskualdeetako liderrak berak Espainiako presidentearekin batzen ziren astero, eta gureak haren aginduak helarazten zizkien euskal herritarrei. Gaur egun ere men egiteko prozesuan murgilduta jarraitzen dugu.

Argudiatu daiteke bestelako aukerarik ez zegoela; izan ere, krisi berria bezain larria zen, eta agian beharrezkoa zen Espainiako suhiltzaile-kidegoan sartzea eta suhiltzaile bat gehiago izan, mugarik eta identitaterik gabeko sute bat itzaltzeko.

Argudio hori objektiboki faltsua da. Egia da krisi globala zela eta ikuspegi globala zuela. Hori erakunde supraestataletatik etorri zen, hala nola Munduko Osasun Erakundetik. Halaber, egia da Europako estatu bakoitzak bestelako interpretazioa egin zuela egoeraren eta hari lotutako protokoloen inguruan; areago, batzuek krisiaren irakurketan eta hari lotutako

estrategietan bira zorrotzak ezarri zituzten.

Erresuma Batuan, Alemanian, Italian, Danimarkan edo Suedian bestelako interpretazioa egin zuten. Horiek guztiek halako autonomia-maila gorde zuten egoeraren irakurketan, eta hartutako neurriak zeharo desberdinak izan ziren.

Gure kasuan, Espainiako alarma-egoerari lotutako garrantzirik gabeko ñabardura batzuk baino ez ziren izan. Krisi garrantzitsu batean erabakitzeko eskubideari uko egiten zaionean, herritarren oinarritzko eskubideei ere egiten zaie uko: beste batzuek jartzen badituzte aukerak, geure erabakia ameskeria baino ez da.

Aukerarik eza ulertzeko, informazioaren kontrol instituzionala izan da funtsezko faktorea, eta hori gauzatu da harreman publiko-pribatu batez bidez, elkarlanean. Aukera potentzialak ezin dira zabaldu, ikuspuntu "ofizial"etik aldentzen direnak sistematikoki ezabatzen badituzte herritarrek jasotzen duten informazio-bideetatik.

Efektu gaiztoa dago —oso kaltegarria gure herriaren osasun pertsonalerako zein politikorako— 201 Ekitaldiaren 7. lerrabideari itsuki jarraitzean. Askotariko aukerak ezabatzeak erabakien kalitatea murrizten du luzera



begira, nahiz eta epe laburrera sortu halako eraginkortasun-sentsazioa.

Neurri handi batean, pertsonen eta herrien identitatea da, hain zuzen, une bakoitzean zer egin erabakitzeko gaitasuna, baina hori erabakiak beste

batzuek hartzen dituztenean desagertzen da. Ezin da egon giza eskubide indibidualik edo kolektiborik, erabakitzeko aukerak aintzat hartzen ez badira subirotasun-maila minimoarekin. Kontrakoak identitatearen beraren gainbehera dakar.

## 5 ERABAKIAK

Erabakiak hartzeko eredu dinamikoaren bidezko azterketan aurrera egin ahala, edukia ahuldu egiten da.

Aurreko ataletan adierazi bezala, dinamikaren aurreko etapak hasieratik edukirik gabe geratu ziren. Egoera ez zen inoiz ulertu euskal ikuspuntu batetik, eta ez zen inoiz egon erabakitzeko euskal aukerarik. Erabaki gehienak Madriletik etorri ziren, ñabardura txikiekin.

Aukerak Madriletik etorri baziren eta men egin bazitzaien, erabakitzeko eskubidea edukirik gabe geratzen da.

Halere, komeni da aztertzea Madrilen hartutako erabakien kalitatea, gure instituzioek erabaki horiek betearazi baitzizkien euskal herritarrei.

Badira nazioarteko adierazleak erabaki horien kalitatea aztertzen dutenak. 2020ko martxo eta maiatz arteko krisiaren etapa larriena aztertuz gero, Cambridgeko Unibertsitateak egindako adierazle bat erabiltzen da. Adierazle hori 33 herriri aplikatu zaie eta Espainiaren tokia 33.a da, hau da, pandemiako kudeaketarik txarrena munduan aitortu zaio.

Parametro sanitarioak, sozialak eta ekonomikoak kontuan hartuta, estatu hobeak hauek izan ziren, ordena honetan: Letonia, Australia, Lituania, Estonia, Japonia, Eslovenia, Eslovaquia, Zelanda Berria, Norvegia eta Grezia.

Nabarmentzekoa da Espainiak eta, hortaz, Euskal Herriak pertsonak mugitzeko muga handienak izan

zituztela; horrek funtsezko giza eskubide bati eragin dio eta lotura zuzena dauka familien ekonomiarekin eta familiakoen osasun fisiko zein mentalarekin. Espainian eta, hortaz, Euskal Herrian umeei debekatu zitzairen kalean paseatzea, baina ez txakurrei. Munduko toki bakarrak izan ziren...

Aurrekoari erreparatuta, aipatzekoa da Suediak, mugitzeko inolako mugarik gabe, 22. lekua duela zerrendan, Espainiaren 33.aren eta azkenaren aldean.

Ba al da zerbait harrigarria emaitza horietan? Ez, benetan. HONTZAREN aztertze-eredu dinamikoak aurreikusten du erabakiak hartzeko metodologia autoritarioek askotan emaitza txarragoak ematen dituztela. Zergatia erraza da: izan daitezkeen aukerak bertan behera uzten dituzte.

Men egiteko aginte bakarra ezartzean, irtenbide txarren alde egiteak arrisku handia dakar. Ez dago elkarrizketa eraikitzailea; beraz, ez da irtenbiderik eraikitzen, eta bakarrik beste batzuek esaten dituztenak ezartzen dira. Hori argi ikusten da Cambridgeko Unibertsitatearen sailkapenean, non herritarren erantzukizuna erabiltzeko hautua egin zuten herriek —eta giza eskubideak gutxiago murriztu— leku hobeak dituzten zerrendan. Hori Alemania, Danimarka edo Norvegiari gertatu zitzairen; herri horietan hartu ziren neurriek ez zuten inoiz izan mugitzeko muga.

Gauzak horrela, ikusten da gure Herria, hasieratik berezko estrategia zabaldu

ez zenez, harrapatuta geratu zela — erabakitzeko gaitasunik gabe— pandemiako kudeatzaile eskasenen artean. Kontua ez da bakarrik identitate politikoari uko egitea, baizik eta ikuspuntu praktikotik oso urrun zegoen estrategia bati jarraitzen zaiola, eta herriaren erresilientzia kolokan gelditzen da.

Agian mereziko zuen berezko eskubideei uko egitea aldi baterako, eta horren ordeztu egoera ondo kudeatzeko gida izatea. Hori eztabaidagarria izan liteke, baina ez dago baliozko argudiorik eskubideei uko egitea justifikatzen duenik, okerren egin dutenei jarraitzeko.

## 6 EKINTZAK

Gure Herriaren berriazko ekintzen inguruan ezin da gauza handirik esan, ia dena Espainiako Gobernuak ezarritako alarma-egoeraren barruan kokatu behar da-eta.

Merezi du azpimarratzea zenbait neurri herritarren ardurapean ezarri baino gehiago segurtasun-indarrek inposatu dituztela, behartzeko bideak erabiliz.

Zentzu horretan, saihestezina zen — estrategia orokorraren menpe egonda— herritarrentzako plan operatiboa ere menderatuta geratzea. Ekintza hauek guztiak

- Itxialdiak
- Maskarak
- Distantzia soziala
- Lehen mailako arreta murriztea
- Jaiak eta ospakizunak ezabatzea

zabalduta dira Euskal Herriaren Estatuko gobernuaren filosofiaren arabera, bai edukian, bai moduan. Gure instituzioak ez dira une batean ere saiatu plus demokratiko eta parte-hartzaile bati eusten, gure Herriaren tradizioak eskatuko zukeen bezala.

Kontuan hartzen badugu Parlamentuko gehienak euskal gizaritearen ordezkariak direla, konturatzen gara

aukera politiko guztiek, inolako gatazkarik gabe, Madrilek inposatutako politika guztiak *de facto* onartu dituztela, jakinda Madrilek ere instituzio supranazionalak eta globalek agindutakoa bete eta betearazi duela.

Pandemia honetan, alderdi teorikoki subiranistek aparteko osasun-politika egiteko hautabidea galdu dute — eta Estatuarenetik aldentu —, aukera supranazional eta global horretatik kanpo geratzeko. Izan ere, uniformatu eta tokian tokiko identitateak ukatzen dituen globalismo baten aurrean, kulturari eta identitateari lotutako lokalismo bati eustea izango zen eraginkorrena: Herria egitea Herriaren baitatik helburu izanik, aurre egin ahal zaio aginte-metodoak erabili eta giza eskubide indibidual eta kolektiboak mugatzen dituen mundu *berri* bati, bide geopolitikoak baliatuz.

Hemen, Europako iparraldera begira egon izan gara betidanik, herri garatuagoen antza handiagoa izateko eta kortse espainiarretik ihes egiteko. Hala ere, krisi hau agertu, eta bat-batean bira egin zen Madrilerantz. Horrela, beste modu batean jokatzen lagundu zezakeen edozein begirada ezabatu egin zen.

## 7 ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

### ERABAKITZEKO ESKUBIDETIK MEN EGITERA BEHARTZERA: ARRISKU INDIVIDUAL ETA KOLEKTIBOA

- I Euskal Herrian beharrezkoa da giza eskubideen eboluzio eta egoeraren analisi independentea, iraunkorra eta osoa. Badira zantzuak azken urtean eskubide indibidual eta kolektiboetan hondatze handia adierazten dutenak; horrela jarraituz gero, etorkizunean egoera txarragoa izan zitekeen.
- II COVID-19aren krisiak erabakitzeko eskubideari uko egitea ekarri du de facto, berariazko euskal identitatea alde batera utziz eta identitate espainiarretik bereizi ezin den identitatea hartuz.
- III Madriletik datorren aginte bakarraren ildoak euskal herritar bakoitzaren bizimoduraino luzatzen da ezinbestean. Hori horrela dela, erabakitzeko eskubidea erabili beharrean, euskal herritarrak bere burua behartuta sentitzen du Madriletik datorren aginte-kateari jarraituz.
- IV Espainiako Estatuaren estrategia munduko txarrenetako bat izan da; hortaz, gure herriak bere identitateari uko egiteaz gain, estrategia arrotz eta akastun batean

harrapatuta ikusten du bere burua, erreakzionatzeko abagunerik gabe. Horrek erresilientziarako gaitasuna ikaragarri murrizten du, eta erresilientzia da, hain zuzen, guztiz beharrezkoa krisi global honetatik azaltzen ari den mundu berri honetan. Gure identitatetik abiatuta modu independentean jokatzeko ez badugu, gure Herria desagertu egingo da.

- V Espainiako tradizioan beti egon den ukitu autoritarioak gure liderrei ere kutsatu die estrategia eskas eta espainiar-espainiarra. Arrisku handia dago eskubideei eta identitateari uko egitea betebeharramaigabea bilakatzeko, gizabanako eta herri moduan.
- VI HONTZA elkarteak badakigu krisi globalek ikuspegi globalak behar dituztela, baina Nazio Batek berariazko estrategiak erabiltzea ez da kontraesanetan erortzea; izan ere, estrategia horiek nazioaren errealitatetik gertuago daude eta identitate handiagoa ematen diote.
- VII Horregatik guztiagatik, gure instituzioei eskatzen diegu Euskal Herriaren –eta euskaldun bakoitzaren– erabakitzeko eskubideari begiratzeko berriro. Krisiaren fase larriena igarota, geure identitatea berreskuratzeko unea heldu da, nahi dugun

etorkizuna eraikitzeko, erresilienteak izateko (gizabanako eta kolektibo moduan) eta ziurtatzeko belaunaldi berriek harro sentitzen jarraituko dutela antzinako herri baten kide izateaz; horrela, argi geratuko da, honaino helduta, gure herriak ez diola uko egin berezko balentriari.

HONTZA sortu da herritarren eta euskal erakundeen zerbitzuan jartzeko eta giza eskubide indibidual zein kolektiboen

etengabeko eboluzioa monitorizatzeko, gure herrian. Monitorizazio horretatik abiatuta, HONTZAK bere burua eskaintzen du berme moduan erabaki publiko zein pribatuak hartzeko prozesuen optimizazioan, ahalik eta erresilientzia handiena sortzeko eta gure herri-identitatea sendotzeko; izan ere, gure herri kementsuak Giza Eskubideak defendatu eta maite izan ditu beti.

**Gernika, 2021ko irailaren 21ean**